

**UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBAK
 BIOLOGIA AZTERKETA
 2008/2009 IKASTURTEA**


JARRAIBIDEAK:

Bi aukeretatik, A eta B, bat hautatu, eta erantzun aukera horrek dauzkan bi zatietako aztergaiak.

A AUKERA

1. ZATIA (5 puntu)

Irudian proteina baten desnaturalizazio eta birnaturalizazio prozesuak erakusten dira.



Aztergaiak

- a. Egin proteinen sailkapena organismoetan betetzen dituzten eginkizunen arabera. **(1,25 puntu)**
- b. Azaldu proteinek izan ditzaketen egitura sekundario motak. **(1,25 puntu)**
- c. Entzimak jarduera katalitikoak duten proteinak dira. Aipatu horien gune aktiboaren ezaugarriak. **(1,25 puntu)**
- d. Entzimen jarduerari eragiten dioten faktoreetako batzuk inhibitzailak dira. Azaldu dauden inhibizio motak. **(1,25 puntu)**

2. ZATIA (5 puntu)


Aztergaiak

- a. Arrazoitu zer esan nahi duen mintz plasmatikoa dinamikoa eta asimetrikoa izateak. **(1,25 puntu)**
- b. Deskribatu Mitchell-ek proposatutako teoria kimiosmotikoaren ezaugarriak. **(1,25 puntu)**
- c. Azaldu zer den fotofosforilazio ziklikoaren prozesua eta zein baldintzatan gertatzen den. **(1,25 puntu)**
- d. DNAREN oligonukleotido baten harizpi kodetzailea ondoko hau bada:
5'-ATTAGCCGAATGATT-3'
Idatzi DNAREN harizpi moldearen sekuentzia eta mRNAren sekuentzia. Zenbat aminoazido kodetzen ditu harizpi horrek? **(1,25 puntu)**

B AUKERA

1. ZATIA (5 puntu)

Irudiak DNAk ematen duen informazio-fluxua agertzen du, hori baita "biologia molekularren oinarritzko dogma".



- a. Azaldu erreplikazio mekanismoa prokariotoetan. (1,25 puntu)
- b. Aipatu erreplikazioaren ezaugarri bereki batzuk eukariotoetan. (1,25 puntu)
- e. Azaldu mRNAren transkripzio-ondoko aldaketak. (1,25 puntu)
- d. Zer da kode genetikoa? Azal itzazu bere ezaugarriak. (1,25 puntu)

2. ZATIA (5 puntu)

Aztergaiak

- a. Konzentrazio ezberdineko bi disoluzio ditugu, mintz erdiragazkor batez bereizita. Norantz barreiatuko da ura? Arrazoitu erantzuna. **(1,25 puntu)**
- b. Zein dira nukleoaren poroetan zehar, nukleoan sartu edo handik ateratzen diren molekulak edo partikulak? Arrazoitu erantzuna. **(1,25 puntu)**
- c. Organismo autotrofo guztiak fotosintetikoak al dira? Arrazoitu erantzuna. **(1,25 puntu)**
- d. Deskribatu Monera Erreinuko organismoen ezaugarriak, ondokoei dagokienez: egitura, morfologia, zelula-antolamendua eta ugalketa motak. **(1,25 puntu)**